

Otsailaren 3
URTEAN ZEHARREKO 4. IGANDEA

Agurra

Gure Maisu eta gure Jauna den Jesu Kristo, beti zuekin!

Sarrerako oharpena

Gutako bakoitza Jainkoak aukeratua dela gogoratzen digu gaurko liturgi ospakizunak. Eukaristia ospatzen dugun bakoitzean bokazio hori berritzen dugu eta indartsu egiten gaituzten fedean, itxaropenean eta maitasunean sendotuak gertatzen gara. Pozik ospatuko dugu gaur ere biziaren sakramentua.

Damu-otoitza

Jesus gure Jauna dela aitortuz, eska dezagun bekatuen barkamena.

—Jesus Jauna, Zu zara gure bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zu zara gure egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zu zara gure bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Egizu, Jainko gure Jauna,
 Zu bihotz-bihotzez maita zaitzagula,
 eta gizon-emakume guztiak geure burua bezala maita ditzagula.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Itun Zaharrear ohikoak dira garaipenak, agerpen argitsuak, literatura liburu onenetako harrigarriak... Jeremias, ordea, apala da: Jainkoak sendotzen du. Berdin Jesu Kristo ere, ez dator inor menderatzera; askatasuna, grazia eta bedeinkapena dakartza.

Lehenengo irakurgaia (Jr 1, 4-5. 17-19)

Jeremias profetaren liburutik

Josiasen egunetan, Jaunaren hitza etorri zitzaidan, eta honela esan zidan: «Sabelean sortu zintudan baino lehenagotik ezagutzen zaitut: eta umetokitik atera baino lehenago bereizi zintudan, eta herrientzako profeta ezarri. Lot itzazu, beraz, gerriak; zoaz eta esaiezu Nik agintzen dizudana. Ez izan haien beldurrik; bestela Nik sartuko dizut haien beldurra. Begira, Nik gaztelu jartzen zaitut gaur, burdinezko zutabe eta tupikizko hesi, herrialde guzti honen aurrean. Borroka egingo dizute, baina ez zaituzte menperatuko; Ni zurekin bait nago, salba zaitzadan» —Jaunak esana—.

Erantzun-salmoa (Sal 70, 1-2. 3-4. 5-6ab. 15ab eta 17)

Ni - re a - ho - ak i - ra - ga - rri - ko du, Jau - na, zu -
 re sal - ba - me - na.

Zugana biltzen naiz, Jauna,
 ez nadin lotsa sekula.

Zuzena zarenez gero, aska eta onik atera nazazu,
 itzul nigana belarri hori, eta salba nazazu. R/.

Izan zakizkit gorde-harkaitz, ‘
gaztelu sendo ni salbatzeko,
nire harkaitz eta gaztelu Zu baitzaitut.
Ene Jainko, aska nazazu gaiztoaren eskutik,
bihurrien eta zapaltzaileen ukabiletik. R/.

Zu baitzaitut, Jauna, nire uste ona,
Zu, Jauna, gazte nintzenetik nire itxaropena.
Zugan tinkatu naiz amaren sabeletik,
amaren erraietatik laguntzaile zintudan. R/.

Nire ahoak zure zuzentasuna iragarriko du,
zure salbamena egun osoan.
Zuk didazu, Jauna, gazte nintzenetik irakatsi,
orain arte ditut zure mirariak iragarri. R/.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 12, 31—13, 13) – *utz daiteke [] kako artekoa*

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: [Irrika itzazue dohainik onenak. Eta oraindik beste bide bikainago bat adieraziko dizuet. Nik gizakien eta aingeruen hizkuntzetan hitzegingo banu ere, maitasunik ez badut, tupiki soinulari eta ezkila tintilaria besterik ez naiz. Igertzeko dohaina izanik ere, eta ezkutuki eta jakingarri guztiak jakinda ere, eta mendiak aldatzeko adinako sinesmen osoa edukita ere, maitasunik ez badut, ez naiz ezer. Eta dudan guztia behartsuen artean banaturik ere, eta nire gorputza erretzeraino emanda ere, maitasunik ez badut, guzti hori ez dut ezertarako.]

Maitasuna eramankorra da, bihotz-bera; maitasunak ez du bekaitzik, ez handiusterik; maitasuna ez da harroa, ez da eragabea, ez da berekoia, ez haserrekorra; ez du kaltea gogoan hartzen, ez da

bidegabekeriarekin pozten, egiarekin baizik; dena barkatzen du, dena sinesten, dena itxaroten, dena ongi eramaten.

Maitasuna ez da sekula itzaltzen; goi agerpenak, bai, amaituko dira; hizkuntzak isilduko dira, eta jakintza bukatuko. Erdizkakoak dira gure jakintza eta gure agerpenak. Osoa datorkeenean, ordea, zokoratu egingo da erdizkakoak. Ume nintzenean, ume bezala mintzatzen nintzen, ume bezala sentitzen nuen eta ume bezala irizten. Gizon egin naizenean, ordea, utzi ditut ume gauzak. Orain ispiluan eta ilun antzean ikusten dugu; orduan, berriz, aurrez aurre dugu ikusiko. Orain erdizka ezagutzen dut; orduan, berriz, Jainkoak ni ezagutzen nauen bezala ezagutuko dut nik.

Orain sinesmenak, itxaropenak, maitasunak, hiru hauek diraute; baina hiruetan, maitasuna da nagusi.

Aleluia (lk. Lk 4, 18a-19a)



Behartsuei berri ona ematera bidali nau Jaunak,
Gatibuei askatasuna hots egitera. R/.

Ebanjelioa (Lk 4, 21-30)

Homiliarako argibideak

Jesusek Nazareteko sinagogan lehen aldiz agertu ondoren, bere herrikideei fede falta aurpegiratzen die eta bere herrian miraririk

egin ezina adierazten bi esamolde hauek erabiliz: «sengadile, senda ezazu zeure burua» eta «ez da profetarik, bere herrian ondo ikusia denik». Hasierako txaloak laster bihurtzen dira haserre hori entzutean. Bere herrikoek mirariak ikusi nahi zituzten... atseginago zuten Jesusek gaixoak sendatzea eta ez beraien fede falta agerian uztea.

Jesusen misio-egintzaren lehenengo porrota da. Izango dira beste batzuk ere, Gurutzerainoko bidean. Esana zuen Simeon zaharrak Jesus haurra tenpluan aurkeztua izan zenerako: «eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da».

Itun Zaharretik gaurdaino profetek jasan behar izan duten zerbait da gustuko ez izatea. Sasi-profetek egiten dute aurrera: jendeak entzun nahi duena esaten dutenek, agintarien belarriak gozarazten dituztenek. Egiatzko profetak, aldiz, deseroso gertatzen dira eta kontrako jarrera sortzen dute puri-purian dauden gaiak aipatu edota injustiziaren zauria ukitzen dutenean.

Jeremias azaltzen zaigu profetaren eredu moduan. Entzun nahi ez dion herriaren aurrean ere, berak Jainkoaren aginduari leial eusten dio eta Jainkoaren izenean mintzatzen da.

Guri ere garai zailetan kristau izatea tokatu zaigu. Kristau orok jaso du berri ona zabaltzeko enkargua: bere egintzen bidez, bere testigantzaren bidez Kristo hots egiteko betebeharra. Eta hori askotan gizarteak daraman korrontearen kontra egitea da. Guri ere kostatzen zaigu gure "herrian profeta izatea".

Ez dugu adorerik galdu behar. Beldurrik gabe izan behar dugu testigu, Jainkoa ondoan dugula uste osoz sinetsiz. Balio digu Jeremiasen testigantzak, balio digu duela gutxi santu aitortua izan zen Romero gotzain martiriarenak, balio digu gaur egun kristau izate hutsagatik hiltzen dituzten hainbat eta hainbat kristau ausarten testigantzak ere. «Zure eskuetan Jauna nire bizia, zu zara nire

harkaitz sendoa». Jesus ez zen atsekabeen murgildu. Nazareteko zailtasun haren ondoren aurrera egin zuen, jarraitu egin zuen ausardiaz, bukaeraraino, bizia emateraino.

Bigarren irakurgaietan entzun dugun San Pauloren maitasun-kantua ere aintzakotzat har dezagun. Hizkuntzak jakitea eta hitz egiten jakitea ona da. Gauza asko jakitea eta jakinduria izatea, zoragarria. Behartsuei laguntzea txalogarria da. Baina... hori guztia «maitasunik ez badut, alferrik dut». «Brontze soinulari eta ezquila tintilari besterik ez naiz». Hori guztia igaro egingo baita. Maitasuna ez, ordea.

Merezi du San Pauloren kantu hau, maitasunaren gorazarre hau behin eta berriz irakurri eta hausnartzeak. Badaki Paulok eliz elkartean berri, eta badaki zail dela batasunean leial irautea. Gure giza harremanetan maitasunak zer garrantzia duen konturatu behar dugu.

Paulorena bera ote da gure bizitzako programa? Eraman onekoak, bihotz onekoak al gara? Elkartearen batasuna lantzen al dugu? Oltoa jartzen al dugu zauriak sendatzeko, ala zauriak handitzen jarduten gara? Ba al dakigu barkatzen, aukera berriak ematen? Errukiaren urte honetan zeinen ongi egingo genukeen hau guztia hausnartuta!

Bizitzaren azkenean maitasunaz galdetuko omen digu Jainkoak: eman ote dugun jaten eta edaten, izan ote garen gertuko gaixoekin eta kartzelan daudenekin, maitatu ote ditugun guztiak bihotz onez... Errukizko egintzak egitea da maitasuna agertzeko biderik ederrena. Egiten duguna eginda ere, maitasun egiazkoaz egin behar ordea.

Horrela beteko dugu mezaren hasierako otoitzean eskatu duguna: «Egizu, Jainko gure Jauna, bihotz-bihotzez maita zaitzagula, eta gizon-emakume guztiak gure burua bezala maita ditzagula».

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, dei egin diezaiogun bihotz batez on guztiaren iturri den Jainko Aitari:

- Hemen Jaunaren izenean bildua eta mundu osoan zabaldua dagoen Elizaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure herriaren alde, ongizatean eta bakean aurrerapausoak eman ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bidean direnen alde, gaixoen, kartzelatuen, behartsuen eta sufritzen duten guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure senide hildakoen alde, Jaunak bere argizko eta zorionezko erreinuan sar ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, bere herrian onartua ez zen profetarengan agertu zenigun salbamina onartzen edo gaitzesten duen gizadiaren zoria; entzun gure otoitzak eta egizu Zure Elizan ez daitezela sekula falta Ebanjelioa ausardiaz hots egingo duten misiolariak. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Indarberritu egin gaituzu, Jauna,
gure erospeneko sakramentuaren bidez;
egizu, egiazko fedean beti Aurrera egin dezagula,
betiereko salbamenaren janari honi esker.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**